

## 2024ko FAMILIEN EGUNEKO KANPAINA

### ZEIN DESBERDINAK DIREN FAMILIAK!

#### ZERGATIK KANPAINA HAU?

MSPE (Madres Solteras por Elección) elkarteko kideok uste dugu maiatzaren 15ean Familien Nazioarteko Eguna ospatzea garrantzitsua dela. Horretarako kanpaina inklusibo bat zabaldu nahi dugu, non familia-errealitate guztiek lekua daukaten. Egun horretan bereziki, egokia da familiari buruz hitz egitea eta hausnartzea, gure arreta familien aniztasunean jartzea, eta gizartean eta, ondorioz, eskoletan, dauden familia-ereduak ikusararaztea.

MSPE Elkarteko Hezkuntza Batzordeak data hori ospatzeko bere aletxo eman nahi izan du. Horretarako materiala sortu dugu eta, gure ustez, baliagarria izan daiteke familientzat, etxean erabiltzeko eta seme-alaben eskolotara eramateko, eta irakasleentzat. Kasu bietan, baliabide didaktiko modura balio du familia-aniztasunaz hitz egiteko eta Familien Nazioarteko Eguna ospatzeko, eztabaida- eta hausnarketa-giroan.

Gainera, sare sozialek gaur egun gure gizartean daukaten eraginaz jabetzen gara eta, beraz, materiala egokitu dugu sare sozialen formatuan sar dadin.

#### ZER MATERIAL SORTU DUGU?

- 1. Aurkezpenak:** bi aurkezpen sortu dira, bata Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako eta bestea Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Ziklorako eta Bigarren Hezkuntzarako. Aurkezpen guztiak daude euskaraz, katalanez, galegoz, eta gaztelaniaz.
- 2. Bideoak:** Aurkezpenak dira bideoen oinarriak, bata Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako eta bestea Lehen Hezkuntzako Bigarren eta Hirugarren Ziklorako eta Bigarren Hezkuntzarako. Bideo guztiak guztiak daude euskaraz, katalanez, galegoz, eta gaztelaniaz, testuak eta ahotsak, ikusteko desgaitasuna daukaten pertsonen irisgarritasuna errazteko.
- 3. Justifikazio didaktikoa:** dokumentu hori materialak erabiltzeko gida gisa erabili daiteke.

## **NOLA ERABILI MATERIALAK?**

Aurkezpenak eta bideoak modu gogoetatsuan erabili behar dira beti. Heldua izango da dinamika gidatuko duena.

Ez da gomendatzen dena jarraian ikustea, baizik eta geldialdi txikiak egitea, ikasleek erantzunak edo iritziak eman ditzaten; horrela, eztabaida- eta elkarrizketa-giroa sortuko da, gogoetak aberastu eta berdinen arteko ikaskuntza sustatuko da.

**Bideoak kusteko gida posible modura, geldialdi hauek egitea gomendatzen dugu:**

- 1. ZER DA FAMILIA BAT?** Galdera honetan gomendagarria litzateke tarte bat uztea erantzuna eman dezaten, ozen edo idatziz.  
Idatziz erantzuten badute, EZ irakurtzea gomendatzen da; erantzuna gorde eta aurkezpena amaitu ondoren, berrikusi dezakete, definizio bera egiten jarraitzen duten ala ez ikusteko.
- 2. PERTSONA HORIEK GUZTIEK OSATZEN AL DUTE FAMILIA BAT?** Atal honen helburua da argazkia bat agertzen den bakoitzean ikasleek galderari erantzuteko aukera izatea, argazkian agertzen denaren arabera. Era guztietako erantzunak ager daitezke eta helduak ez du jarrerarik hartu behar; hausnarketarako gida izan behar du eta espazio segurua sortu behar du, ikusleak iritziak partekatu ahal izan ditzan epaituta sentitu gabe.
- 3. Orduan, ZER DA FAMILIA BAT? NOR AUSARTZEN DA FAMILIAREN DEFINIZIO BAT EGITERA?** Galdera honetan gomendagarria litzateke berriro tarte bat uztea erantzunak eman ditzaten, ozen edo idatziz. Ziurrenik, lehen aldiz galdetzen denean emandako erantzunak eta oraingoak ezberdinak izango dira, horrek ere hausnarketa egiten lagunduko digu.  
Une egokia da lehen galderan idatzitakoa partekatzeko, orain, bideoa ikusi ondoren, familiaren ideia bera izaten jarraitzen duten ala ez ikusteko.
- 4. EZTABAIDARAKO UNEA:** Eztabaidan lagungarri izan daitezkeen zenbait galdera egingo ditugu, baina eztabaida irekiak eta ahalik eta parte-hartze handienarekin egin behar dira; horretarako, galdera gehiago egin daiteke. Eztabaidatzeko unea da, ordura arte ikasitakoa berriro aztertzeko eta zalantzak argitzeko.

## JARDUERA GEHIAGO

- 1. GURE FAMILIAREN IRUDIKAPENA:** Esan ikasleei beren familiaren marrazki bat egiteko. Izan daiteke irudi bat marraztuz, kartoi mehezko edo plastilinazko irudiak eginez, etab.
- 2.** Jarduera honen helburua ikasgelako familia-errealitatea ikusaraztea da, ikasleen artean familiarenganako harrotasun sentimendua sustatuz.
- 3. ZER GUSTATZEN ZAIT FAMILIAREKIN EGITEA?** Familian igarotzen ditugun une bereziak, familiarekin egitea gustatzen zaigun zerbait edo familian gaudela sentiarazten diguten gauzak marraztu edo idatzi. Jarduera honen helburua da familiak zaletasun, gustu, jarduera, sinesmen eta jolasengatik ere desberdintzen direla ikustaraztea da, ez bakarrik osaeragatik.
- 4. ZUHAITZ GENEALOGIKO IREKIA:** Zuhaitz genealogiko irekia egitea. Familiako kideak kokatzeko, ikasleek zuhaitzaren irudia edo beste bat erabil dezake. Irudimena landuz, ikasle bakoitzak bere familia ondoen irudikatuko duen osaera aurkitu behar du. Osaketa genealogikoek bidea eman behar dute familiako ondorengoak, familia elkartuak, emaileak eta abarrak irudikatuzko.
- 5. MIKRO KONTAKETA FAMILIARRA:** Familia protagonista den kontakizun txikia idaztea. Jarduera hau familiaren abentura bat imajinatuzko pentsatuta dago; beste behin ere, familien desberdintasunei buruz hausnartzeko aukera da, abenturei buruz hitz egiten dugunean ere.
- 6. FAMILIA ANIZTASUNARI BURUZKO LAP BOOK-A:** LapBook-aren teknika erabiliz, familia-aniztasunari buruzko aurkezpenean ikasitakoa biltzea proposatzen da. Helburua da eskuratutako informazioa antolatzea eta ikasgelan denon artean partekatzea.
- 7. FAMILIA DESBERDINAK AGERTZEN DIREN IPUINEN BILDUMA:** Jarduera honetan, protagonistak familiak diren liburuak bilatu behar dira. Familia anitzak izango dira, osatzeko formagatik, bizitzeko moduagatik, interesengatik, janariengatik, etab. Ikastetxeko liburutegian edo udal liburutegietan egin daiteke. Helburua da ipuinetan edo irakurketa-liburuetan familia-eredu berak agertzen den edo familia-aniztasuna benetan ikusten den egiaztatzea.

## REFERENCIAS

- <https://tataranietos.com/> Web que habla de genealogía viva.
- <https://familiasenpositivo.org/monograficos/guia-de-recursos-educativos-de-diversidad-familiar> Guía de recursos educativos de Diversidad Familiar
- “¡Maravillosas Familias! Homenaje a Gloria Fuertes” de Luisa Guerrero, [www.trabajemosporelmundo.org](http://www.trabajemosporelmundo.org)
- “El gran libro de las familias” Mary Hoffman. Intermón, 2010.
- “Las familias en las aulas” Guía práctica de herramientas y recursos educativos de Diversidad Familiar. FELGTB
- “Familias de colores <https://familiasdecolores.wordpress.com/> (Juan Andrés Teno)
- “Familias por la Diversidad” <https://www.familiasporladiversidad.com/>
- Diversidad familiar: los diferentes tipos de familia - Observatorio FLEX <https://observatoriofiex.es/diversidad-familiar-los-diferentes-tipos-de-familia/>
- <https://asociacionmasfamilia.com/15-de-mayo-que-entendemos-por-diversidad-familiar/> “15 de mayo, ¿que entendemos por diversidad familiar?”